




EUSKALERIKO

BERIAK



GIPUZKOA

MIKEL DEUN EGUNA

Gipuzkoa osoan ospe aundia eman zait Mikel deun egunari. Erri guztietan izan dira abertzaleak ateratako lezak. Eta jendea igandetan bezalaxe eldu meza oietan.

Arratsen berriz zenbait tokitan, egun aundia dagokionez, aparta merendatu batzuekin osatu zuten eguna. On daga! guztia!

Esan bearrik ez dago berriz urrietarrik eta onatiarrik eta... beren erri zaindari Mikel deuna bait dute, jai ederak egin dituztela ta inguru errie tako jendeak ere orlakoetan oi dan bezela. kutsuak arrapatu dituztela.

Erri pesta oiekin Gipuzkoa'ko erri jaunak amaitu dirala kontu. Orain negua ba datorkigu ta neguan pesta guzti...

Datorren udara berrirarte itxaron bearko pestaz-pesta nun da nere burua, an da nere zankoa ibiltzeko.

EUSKAL ASTEA

Amaitu da aurtengoz Euskal astea. Gaur zortzi izan zan azken eguna ta Zubietas-Lasarte'ko jalekin akabo egin zitzaion berari. Jendea ugari izan omen zan batez ere arratsaldean Lasarte'ko zelai ederrean. Gelenak gañera eusko-jantzi apainduak naiz mutil naiz neska. Baño an ibilli ziran zenbait taldeetan jantzia bakarrik izan bear zun euskotar; orlik kanpo ezertxo ere ez. Izker ta ibilker ta gañerakoak, arrotz, arrotz eta arrotz...

Baño ez du orren erria eusko asteak eta or konpon!

USANDIZAGA ASTEA

Au ere gaur zortzi «Golondrina» eres antzerkiarekin amaitu zan. Usandizaga eresgille gurenak egin zitun «Mendi mendiyari» eta len esan degun «Golondrina» bi eres-antzerkiak. bakotza iruna aldiz bota dituzte Victoria Eugenia antzokian. Eratzalle Orfeon Donostiarrak izan da. Bi antzerki-ekin egilea bera izan arren, eusko usai bikañez bete «Mendi-Mendiyari» da. Ura bai dala ederra! Eresiz ere gañera beste gaño ohea noski.

Jendea asko ibilli da ta eratzalleak noski egin duten lanarekin pozik egon go dira.

Zorionak berai. Antzezlariak bat edo beste izan ezik euskotarrak izan dira. Abeslari taldea berriz Orfeon Donostiarrak. Guzien gain bera egongo al zan gañera, naiz ta abestu bear aundirik ez izan. Abeslari ta ereslari, guztien zuzentzale Usandizaga'tar Ramon ibilli da, bi eres antzerki-ekin egilea Joxe Mari jatortaren anaia.

ITXAS-ONTZIAK USTU NAI EZ ETA USTUTZEN UTZI NAI EZ

Joan dan astean eldu ziran Donosti'ra «Asuncion» eta «Ernan» bi itxas-ontziak Asturias'en beren zamak artu ta. An oporrean daukela ta «eskrol» edo diralakoak artu omen ziran zamaketa lanetan. Jakin dute ori Donosti'ko portuako langileak eta ez dituzte ustuko itxas ontziak. Gobernadore sartzu da tartean eta ustuko dirala ta baita ustu ere. Gudariak eraman zituzten lan ortarako ta batzuk

lanean eta besteak zaintzen. ustu dituzte ontziak.

MOTRIKO'N EUN LANGILLE LANIK GABE UTZI

Motriko'n Zelaya'tarrak oyal oia bat dute ta oraindikokan ederi ari zan lanean. Orainsu gabetik goizera eun langille utzi ditu ogibiderik gabe Etorri ziran langilleen ordezkariak gobernadorearengana ta lanik gabe uztea nola izan dan jakitekotan gelditu zan, ia nola edo ala oker ori zuzendu ditekien ikusteko.

Negua gañean, etorkizun beltza baldin eta gauzak oegi konpontzen ez ba dira.

ANDOAINEN BIDE BERRIA

Oraindik orain ez bear aunditoxa gertatu zan Andoain'go Azitain «paso a nivel»ean. Lendik asmoak ba ziran eta arriskua bereala kentzea erabaki dute. Bide beste toki batetik eramateko asmoak dituzte ta lan ori nork merkeen egingo ikusi dute.

Nola nai ere 172.000 laurleko bearko omen dira.

ALTZA'KO ERRERAN BERRIZ ETZ

Oraindik orain bomba pilla billatu zuten Errera'n pñudi batean. Oraingoan Errera'n bertan Kasares'tar Joxe'k dun arotzegiaren atzean billatu dituzte beste pilla bat.

Kasares'en langille bat lanean ari omen zan toki artan eta alako batean oin-azpian zeukan oi batek amor eman eta puskatu egin omen zan. Eta azpian zer agertuko ta bomba pilla ta dinamita ta metxa sorta.

Sei izan bear dute bonbak beren metxa ta guzti su egiteko eran ipiñiak.

Irurogi ta lau berriz dinamita kartxoak eta metxa naikoa.

Billatu zuten guztia artu ta Donosti'ko artilleroen gudaletxera eraman zuten.

Ez da batere arritzeko Errera'n ori gertatzea. Jaungoikoak dakin tokitatik etorritako jendetxo bat ba dago zoko ortan eta...

AUTOMOBILAK JIRA-BIRA EGIN ETA

Udaraldia Ondarrabi'n igarotzen dauden Ballesteros'tarrak Donostiruntz zetozen joan dan asteartean. Erren-derit'k aterata bereala Kaputxinos gaña baño lenago bidea galdu ta jira-bira egin zion automobilak. Luis Ballesteros automobil jabea, bere semea ta idazkaria omen zijoazen barruan. Ballesteros aitak ezurrak autsiki eta zauri aundiak omen ditu. Donosti'ko osat-etxe batera eraman omen zuten.

Ballesteros semeak omen omen ditu zauriak; aundiak ez ordea. Idazkariak berriz ezer gutxi omen du.

Auek biak Ondarrabi'ko beren etxera eraman zituzten.

AUTOMOBILAK ARRAPATU TA IL

Gaur zortzi Lasarte'ko eusko-erromerira zijoala «Teresategi» aldapan Tolosa'ko autobus batek arrapatu zun Uranga'tar Jon donostiarrak gaztea. Osa etxera bereala eraman zuten arren ezertxo ere ezin izan zioten egin. Buruan eta gorputzean zauri aundiak omen zitun gizarajoak. Era artan gelditu ezker o'igin bear nai ta ez. G. B.

AIZARNA

Iruetagoena'tar Felix eta bere emazteak izan duten aurtxoa Maria Cruz izenarekin ugatzatu dute.

Semetxo batekin ugartu dute beren sendia Aranburu basetxean.

Baita ere seme bat geiago badute Gurrutxaga'tarrak.

Zorionak iru sendia.

Ebakuntza egin da Donostin arkitzen da Lorentxo.

Urrillan sartu gera, beragatik erri onetan urtero bezela goizeko seiretan izaten da eleizkizuna.

Urteroko oiturari jarraituaz gaurtik aurrera len seiretan izaten zan me za orain zapiretan izango da eta zortziretara zortzi ta erditan.

Deun Mikel egunean abertzaleak atera ta meza izandu zan. Tamalez badira abertzaleak urrengo eguna arte meza izan zala jakin etzutenak; Beragatik ARGIA'ren bitartez dei egin ten diet bertako batzordeak esanaz arren goan zer bait daniel abertzale guziaz obeto jakinarazten alegiñak egiteko mesedez.

KAITAMA

Zure izen abizenak jakin nai nituke, ba, nik.—T.

Erri onetako «Deun Engrazi Mendin», bizi alitza, bizi? Aspaldian ez degu zure idazkiri eta gu emen gaudelaletirik irakurtzeko. Ia bada idaz ten dezun zuk ortik, guk ere alegiña egingo degu emendik eta. Gaizki itze gin badizut azketsi idazle begiko orrek.

DABILTZANAK

Gazteiz'era jun da Iruet'ar Toribio.

Zestonatik udara aldia igaro ondoren etxeratu da Peña'tar Sabina; baita ere emen ikusi ditugu Onaz Mendiko «Murgil» baserriko anai jatorra.

Azkenik poz aundia nabaitu degu gure errian Idiakez aske dala entzu-

tiakin. ¡¡Gora Idiakez askatuta!!

GURUZ MENDI

ALBIZTUR

JORKE AGIRRE AITA JESULAGU-NARI ESKERRAK ETA ZORIONAK Emengo Luistar guztien izenean eskerrak eta zorionak, bai, Aita agurgarri orri, ain Eliz liburu bikaña Luistar euskaldunontzat bereziki egin eta guztioi eskeintzen digulako.

Aita orrek dionez. lan orretan laguntzale izan ditun gañerako Jesulagun agurgarriak ere, ar bitzate gure esker eta zorionak.

Txit egokia zaigun Luistarren Eliz liburu bikaña eta mamitsu ori, pozik erosi ta irakurri det. Oitoiz eta irakaspide bikañ bikañez beterik arkitzen dan liburu ori erosi gabe, lau pseta bereak daukan Luistarrik, ez luke gelditu bear eta ez da geratuko noski.

Aita Agirre'k eskeintzen digu guk bear degun laguna; Luistar guztioi artu dezagun bizkorki ta pozik bana. Eliz liburu Luistarren ori ongi irakurtzen duena, sarri ta merke egin liteke jakintsu eta zuzena.

Ongi bizi ta ondo iltzeko bide zuzen da indarra... ugari daukan liburu ortatik ar zagus anai Luistarrik! Liburu orrek aienatzen du lotsa txar eta bildura, lagunduz asko irabazitzen, betiko zeru ederra.

ORAINDIK OLAKORIK...

Luma gabeko egoak daukan pizti txit izugarria, orain aldia badabil emen nunbaitetik etorria. Txoriak ere izutzen ditu... igeika oien larria... ipizti ori, noski, burutik dago ariñ edo elbarria!

Lumajez ariñ. burutik berdiñ, dabilen pizti argala, arlote dabil—nonbait dalako—txolifia edo ergela. Ludi onetan biltz osoan, jarraitzen badu orrela, Goiko Ama ez da inguratuko orren ondora sekula.

LUISTAR

Jose Golkoetxea Zulaika Otlari ta sendagillear

Ortiz berriak jarri ta txarrak ateratzeko ortzari trebe ta konfiantzakkoena

Mayor 1, 2.º — DONOSTIA

ANDOAIN

SEGA BATZALDIA

Juan dan igandian bildu ziraden Mendilluze jaunaren jatetxian lau segalari ta zelayaren zuzendari Ugalde jauna ta belar ebakitze batzaldia jokatzeko aratzi au egin zuten:

Aurrenekoa: Segalari bakoitzak izen tatuko ditu bi laguntzale ta irugarren bat, eskobariakin izango-dana, onak epailaritza ere eginaz.

2'na: Sariak onela banatuak izango dira:

1'ko saria: Segalari bat ta biltzen darenen eunetarik ogeita bost. Au izango da biltzen dan diruti'k egin dudan gastuak kendu ta.

PATXI

2'na: Segalari bat eunetarik amabost. 3'na: Segalari bat eunetarik amar. 4'na: Segalari bat eunetarik bost. Irugarrena: Segalari bakoitzak eka-rti lezazke lau sega, baña geyago ez. Segak, irabazleak artu lezazke berak nai duan eran.

Laugarrena: Batzaldia asiera goizeko amaterdian emango zayo.

Batzaldi au gaur, igandian, Urrilla ren 7'an izango da.

Bostgarrena: Zelaya zortzi zati egin go da ta bakoitzak ebakiko ditu bi zati.

Aurrena bi zati oiek ebakitzen dituanak irabaziko du aurreneko saris ta gañentzuek era berian.

Seigarrena: Batzaldi au jokatu ko dan zelayan izango dute sarrera, batzaldiko segalari ta beren laguntzalliez gañera, zelayaren zuzentzalliaz, izparringo ordezkariak eta agintariak. Zelayaren zuzendari dan Ugalde'tar Kepa jaunak lau segalari oyeidi bere olan egiten dituan arropa edukitzeko trenak emango dizkie.

Batzaldia jokatu ko dutenak ondoren izendatzen dituan oiek izango dira: Buruntza'tik Aldasoro'tar J. B. (Arteondo txiki), Sorabilla'tik Oyarzabal' dar Pantzeka, Goiburutik Tolosa'tar Kepa ta Leizoz'tik Etxeberri'tar Simon.

Batzaldi onetaz gañera erabakia ar tu da soka tira bat egitia lau ballera oyetakuakin Andoain'go txapelta jokatzan dutela. Au erabaki da bertara biltzen dan oste edo jendeak ikusgarri geyago izan dezan, bada oste ikusgarri biltzeko dan itxaropena dago.

Soka tira au onela izango da:

Aurrena jokatu ko dute zozketan ate ratzen diran bi ballerak ta ondoren beste biak. Bi ekinaldi oyetan garale irtetzen diraden jokatu ko dute bukaera ta oyetan garale irtetzen dana izango da txapeldun. Alde bakoitzetik zazpi lagun biar dirade. Irabazlearen taldeari emango zaizka bi sega sarizat eta berak ondoena du ten eran zabalduko dituzte.

Igande onetan bertan eman leizke izenak sega batzaldia bukatu baño le nagotik.

Sari sega oiek Collantes'en Alargun andearen denda daude ikusgarri ta berak, Etxeberria jaunak, Legazpiko olako nagusiak eskeñi ditu. «Ezkurra» segak dirade beraz.

Aurtengo batzaldia oso zaletasun aundiya sortu du labak oso ezagunak dira ta errian. Gañera, oyetako bi apustua egiteko ere ibili ziran. Aldasoro (Arteondo txiki) ta Tolosa'tar Pedro ziran. Au Anotakua da baña aspaldian Txitibar baserrian mutil dagona; oso yayua izan biar du. Beste biyak ere gar biazarrein arkitzen dira garaille irtetzeko. Au gutxi ez dala soka tiratzalliaz ere izango ditugu, bada erri onetan zer kuadrilla jarri ez dakitela daude ta orain ikusiko da zeintzuk diraden yayuenak.

Gaur bada Etxeberri'ta ostiko zelayara batzaldia ta gero soka tiratzalliaz ikustera.

ASMAKETAK

LENENGOA

BAT-BI asko, danak IRU-LAU'ak BOST-LAU onakin egin dituzte len txiki zan BAT-LAU batian geratuaz orain aundiagoa. GUZIA eusko alizen zabaldia.

(P. Garin'ek bialia)

BIGARRENA

BAT-BI-IRU-LAU izeneko ibai indartsua naiz. Naparroan jaio ta Gipuzkoan, bizi ta indartzen naiz ni; Euzkadiko olarik asko nere indar IRU-BAT daude: —Ez al zera zu zeri ere nik argia eman IRU-BI egoten? Naparroko BAT-BI-IRU izeneko erria ezagutzen badezu, ni zein naizen laister jakingo dezu.

(«Ontza»k bialia)

IRUGARRENA

1 2 3 4 5 6 7 Euzkadin
1 2 3 4 5 6 7 izalria
3 4 5 6 7 baserrian
3 4 6 7 gezurrezko jainkoa,
7 6 7 abere
4 5 itxasoan
1 izkia

(«Menditar»ek bialia)

LAUGARRENA

A E I U L M R Z
6 2 2 2 2 1 2 2
Esaera zar bat antolatu.

(«Ernaizu»k bialia)

BOSTGARRENA

0 0 0 0 aidetasuna
0 0 0 0 neguan
0 0 0 0 buruan
0 0 0 0 egarritzean

Goi bera ta ezker eskubira berdin irakurri bear dira.

(«Martirena»k bialia)

703'gn. zenbakiko ASMAKETAK ongi ulertu dituzte:

GUZIAK: A. Aranburu, A. Peruarena, I. Olano, J. Larreategi, I. Muxika, R. Andonegi.—Oek 5'na PUNTO LAU: M. Zinkunegi, «Ernaizu», «Jostari».—Oek 4'na PUNTO.

IRU: I. Alkorta, A. Kortajarena.—Oek 3'na PUNTO.

BI PUNTO: «Txiki» alaiak.

—O—

691'gn. zenbakitik asi ta 703'gn. arano (biak barru), zenbatu ditut

PUNTO GUZIAK.

Ara emen agiri:
J. Larreategi ... 63 PUNTO
«Jostari» ... 61 »
«Ernaizu» ... 60 »
R. Andonegi ... 58 »
J. Muxika ... 57 »
A. Aranburu ... 57 »
A. Peruarena ... 57 »
I. Olano ... 57 »
M. Zinkunegi ... 53 »
«Txiki-alai» ... 39 »
A. Kortajarena ... 33 »

... eta abar ...

ARGITARATU DIRAN LANTXOAK:

«Menditar»enak: 14.
«Larreategi»enak: 10.
«Jostari»enak: 6.
P. Garin, «Ernaizu», «Ontza»: 5'na.
Martirena'enak: 4.
Eta abar...

SARIAK OENTZAKO DIRA

Lenengo saria: J. Larreategi, 63 punt; 15 laurleko.

Bigarren saria: «Jostari», 61 punt; 10 laurleko.

Irugarren saria: «Ernaizu», 60 punt; 10 laurleko.

Laugarren saria: R. Andonegi, 58 punto; 5 laurleko.

Bostgarren saria: 57 punto daukaten artcan zozketa egin ondoren saritua izan da: A. Aranburu; 5 laurleko.

LANTXO EGILENTZAT SARIAK:

Lenengo saria: «Menditar»ek, 10 laurleko.

Bigarren saria: Larreategi'k, 5 laurleko.

—O—


Zorionak irabazle! Aste ontatik berriro asko naiz PUNTO ta LANTXOAK zenbatutzen urrengo sari txan darako; jarrai guziok: LANTXOAK baditut aski aldi baterako: bear ditudanean, oau edo dear bat egingo det: prest euki: erantzunak, berri, zintzo bidaltzen saiatu: ain egoki aste batian bial etate batzutan opor? Jarrai EUSKERA'ren alde!

ENDOYA



URDAIA (ESTOMAGOA)

bizitzeak ematen digun alaitasunaren ituria da.



Zaindu zazu ondo jan egokiak emanaz eta

Dr. Vicente'ren

Digestonikotik

kutxarekada batzuek artuaz.

Sendakaitegieta salgai.